

HERNANIKO HIRIGUNE HISTORIKOKO ETXEBIZITZETAN LEIHOAK ALDATZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUEN OINARRI ERREGULATZAILEAK

I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Xedea.

Deialdi honen helburua Hernaniko Hirigune Historikoko etxebizitzetako kanpoaldeko arotzia kristalduna (leiho eta ate-leihoak) berrituz –isolamendu akustikoa hobetu eta energia kontsumoa murriztuz- etxebizitzetako bizigarritasun baldintzak hobetzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea da.

2. Artikulua.- Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da Alkateak 2015eko urriaren 2an emandako eskuordetze Dekretuaren arabera.

3. Artikulua.- Aurrekontuko diru hornidura.

Deialdi honen helburuak lortzeko 10.000 euroko diru kopurua aurreikusi zen 2016ko ekitaldiko Aurrekontuaren ondorengo partida honetan: 02.480.01.150.10 “Dirulag. Etxebizitza birgaitzeko obrak”.

4. Artikulua.- Interpretazioa.

Diru-laguntza emateko ardura duen organo berari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitezkeen edozein zalantzari buruz erabakitzea.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua, aplikatuko dira.

5. Artikulua.- Publizitatea.

Deialdia, oinarri arautzaileak eta haien babesean emandako diru-laguntzak udalaren web orrian www.hernani.eus eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAOn) argitaratuko dira, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 9 artikuluekin bat etorritik.

II KAPITULUA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN ESKU HARTZEAK ETA ONURADUNAK

6. Artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.

Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagungarriak izan daitezkeen jarduketak puntu honetan sartuta dauden jarduketa guztiak izango dira, betiere 2017ko otsailaren 1etik aurrera burutu badira, eta udalaren lizentzia/baimena baldin badute.

Zehazki, diruz lagungarriak izan daitezkeen jarduketak Hernaniko HIRIGUNE HISTORIKOKO ETXEBIZITZETAN KANPOALDEKO AROTZIA KRISTALDUNA (leihoak eta ate-leihoak) BERRITZEA dira.

Jarriko den kanpoaldeko arotzia kristaldun berriak honako ezaugarri hauek izango ditu:

- EB marka eduki beharko dute.

- Kristal bikoitzek isolamendu termiko sendotua (ATRI) duten beirak izango dituzte, 1,40 W/m²K-ko edo txikiagoko transmitantzia termikoarekin (Ug) eta gutxienez 30 dB(A)-koa izango da aireko zaratarekiko isolamendua.
- Arotzia berrituko den bao guztiak etxebizitzaren kanpoaldeko itxituretan egon beharko dira eta ez dira diruz lagunduko etxebizitzaren barrualdeko itxituretan dauden leihoak.
- Jarduketek nahitaezko udal lizentzia/ baimena izan behar dute.
- Etxebizitzak Hernaniko Hirigune Historikoan, Birgaikuntza Integratuko Arearen barruan kokatuko dira (ikusi eremuaren mugaketa 1go Eranskinean).

7. Artikulua.- Diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa eta diruz lagunduko diren gastuak

Itxitura kristaldunak berritzeko laguntzaren guztizko zenbatekoa kontzeptu horregatik egindako inbertsioaren diruz lagun daitekeen kostuaren % 25 izango da, ez itzultzekoa. Diruz lagun daitekeen gehienezko kostu hori 400 €/ leiho m² bakoitzeko izango da, eta betiere, diru-laguntza gehienez 1.000 eurokoa izango da onuradun eta etxebizitza bakoitzeko.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren kalkuluan leihoen kostuak oro har eta baita haien instalaziotik etorritako igeltserotza lanaren kostuak ere sartu daitezke.

Era berean, EZ dira diruz laguntzeko moduko kostutzat hartuko:

- Erositako ondasunengatik edo fakturatutako zerbitzuengatik ordaindutako BEZa eta, oro har, beste edozein zerga.
- Kanpoaldeko arotzia kristalduneko osagaien bat konpontzeko edo ordezkatzeko lan hutsak direnak.
- Kontraleihoak bezalako osagaiak edo antzekoak, pertsiana motorrak, eltxo sareak, esetokiak, barandak, eta abar.
- Eta oro har, argi eta garbi definituta ez dauden gastuak eta helburu zuzena oinarri hauen helburuak betetzen ez dutenak.

8. Artikulua.- Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradunak izateko aukera izango dute, Hernaniko Hirigune Historikoko ohiko okupazioko etxebizitzaren jabe, gozamen-dun edo maizter diren pertsona fisikoak; beti ere, etxebizitza horretan leihoak oinarri hauetan jasotako baldintzetan aldatu badira.

Ezingo dira onuradun izan:

- Diru-laguntzarako Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako kasuetako jarduerak.
- Udalarekin zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituztenak. Egiaztapena ofizioz egingo da.

9. Artikulua.- Beste diru laguntzekiko bateragarritasuna

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorritako beste edozein diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderekina.

Beste laguntza batzuekin elkartuz gero, guztien kopuruak ezin izango du diruz lagundutako jardueren kostua gainditu. Bestela, beharreko kopuruan murriztuko da deialdi honen kargura emaniko diru-laguntza.

III KAPITULUA PROZEDURA

10. Artikulua.- Diru laguntzak emateko prozedura

Oinarri hauetan aurreikusten diren diru laguntzak norgehiagokako prozedura erraztuaren bidez tramitatuko dira, diru laguntzen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, ezin delako denborazkoa ez den beste lehentasun-irizpiderik ezarri. Horregatik, epe barruan eskaerak aurkeztu ahala tramitatu eta ebatziko dira, beti ere aurrekontu-kreditua dagoen bitartean.

Kreditua agortu dela Udal web orrian (www.hernani.eus) jakinaraziko da.

11. Artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Eskaerak aurkezteko epea Oinarriak eta Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren hurrengotik hasi eta, 2017ko ekainaren 1a arte edo diru-laguntza emateko aurrekontua amaitzen den unera arte luzatuko da.

Diru laguntza eskabide osoak aurkeztuta eta bideratzen egongo diren arren, bazter egingo dira, baldin eta esleitutako aurrekontua agortzen bada, organo eskumendunak emango duen ebazpenaren bidez.

Esleitutako aurrekontua agortzen ez bada, aurrez adierazitako epea luzatua ahal izango da eskumendunak emango duen ebazpenaren bidez. Ebazpena udalaren web orrian eta GAO'n argitaratuko da.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak, deialdian jasotakoari jarraiki, Hernaniko Udalaren Herritarren Harrera Zerbitzuan (HHZ) eskuragarri jarriko den eskaera-orri ofiziala behar bezala jasota bertan aurkeztu beharko dute.

12. Artikulua.- Eskabideak: dokumentazioa

Diru-laguntzak hauek jaso ahal izateko, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte eskatzaileek:

- Dirulaguntza eskabide normalizatua, bete eta sinatua.
- Onuradunaren NAREN fotokopia.
- Eskatzailearen kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- Leihoak berritzeko egindako inbertsioa egiaztatzen duen FAKTURA xehea. Honako kontzeptu hauek jasoko ditu gutxienez:
 - Berritze lanaren deskribapen laburra, berritze hori egingo den helbidea zein den zehaztuta.
 - Berritze kontzeptuaren barnean jasotako partidak behar bezala banakatuak.
 - Jarritako arotziaren memoria (nahitaez azaldu behar dira jarritako arotzia mota eta beira mota).
 - Berritutako leihoetako bakoitzaren neurriak.

Fakturak ez baditu adierazitako kontzeptu horiek jasotzen, harekin lotuta dagoen aurrekontua aurkeztu beharko da eta aurrekontuan agertu egin beharko dute kontzeptu horiek, dagokion instalatzaileak sinatua eta zigilatuta.

- Jarritako leihoen ezaugarriak egiaztatzeko DOKUMENTAZIOA:
 - Erabilitako beiretako transmitantzia termikoaren entseguen (Ug) emaitzak.
 - Isolamendu akustikoaren bereizgarria.
 - Jarritako beirak justifikatzen dituzten eranskailuak.
 - Jarritako leihoen EB marka egiaztatzen duten etiketak.

Nolanahi ere, aurkeztutako instalazioari/jarduerari dagokion dokumentazioaz gainera, Udalak egokitzat hartzen duen informazio osagarri osoa eskatu ahal izango die eskatzaileei aurkeztutako instalazioa/jarduera baloratu ahal izateko.

13. Artikulua.- Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da, prozedura artxibatuz, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

14. Artikulua.- Bideratzea.

Espediente hauek tramitatzea eta diru laguntzak ematea Hirigintza eta Ingurumen departamentuko Hirigintza atalaren ardura izango da. Aipatu Unitateak ofizioz egin ahal izango ditu ebazpen-proposamena burutzeko datuak ezagutu edota frogatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

15. Artikulua.- Ebazpena

Diru laguntzak ebazteko organo eskuduna Alkatea izango da. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabidea egin denetik aurrera kontaktzen hasita. Epe horren barnean ebazpenik eman ez bada, eskabidea baztertua izan dela ulertuko da, tarte jarri ahal diren administrazio-helegiteei begira

Eskaera aurkezteak ez du berez ematen diru-laguntza jasotzeko eskubidea, eta diru-laguntza orori dagokion hautazko izaera izango du kontzesio horrek ere.

Diru-laguntza ematea edo ez ematea erabakiko duen Alkatearen Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabete bateko epean, eman zuen organo beraren aurrean, edo bestela, Donostiako Administrazio-azietarako Epaitegiaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

16. Artikulua.- Diru laguntza ordaintzea

Ordainketa bakarrean emango da diru-laguntza, ebazpenean finkatutako zenbateko guztia ordaindurik, pertsona onuradunak aurrez jarduera burutzea justifikatu badu.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, hura bakarrik hartuta edo beste Herri Administrazio batzuen edo beste Erakunde Publiko edo pribatu batzuen beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin batuta, ez da, inola ere, onuradunak egindako instalazioaren edo jardueraren kostua baino handiagoa izango.

Jarduerak, diru-laguntzarekin ez ezik, funts propioekin edo beste diru-laguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, funts horien zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira eta diruz lagundutako jardueretarako erabili direla egiaztatu beharko da justifikazioan.

IV. KAPITULUA
KONTROLA ETA PUBLIZITATEA

17. Artikulua.- Diru laguntzen publizitatea

Diru laguntzen publizitateari dagokionean, bete egingo da azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. eta 20. artikuluek eta abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua xedatutakoa

18. Artikulua.- Ikuskaritza eta kontrola

Pertsona onuradunak behartuta egongo dira diru laguntzen kudeaketa zuzena bermatzera bideratutako ziurtatze guztiak erraztera. Eta ezingo die uko egin diru laguntza eman duen organoak egin beharreko ziurtatze jarduketei.

